

## Ongi etorri haurren KHAU-ra

Haurren kirurgia handi anbulatorioko unitatea, anestesia lokal, erregional edo orokorreko prozedura bat egin aurretik eta ondoren, behar den arreta jasotzen den lekua da. Prozedura horren ondoren, pazienteak alta jasotzen du, egun horretan bertan etxera joateko.



Ama-Haurrentzako eraikina  
3. solairua - HUN-B



## EZINBESTEKO INFORMAZIOA:

- Haurrak aitarekin/amarekin edo legezko tutorearekin etorri beharko du, prozedura osoan zehar lagun diezaion.
- Haurrak **10 urte baino gutxiago baditu**, bidaian 2 heldureki joatea gomendatzen da.
- Etxera itzultzeko bidaia **auto partikular edo taxi batean** egitea gomendatzen da.
- Pazienteak ebakuntza aurreko baraualdia behar bezala egin beharko du.



**848 429 837**

Astelehenetik ostiralera  
08:00etatik 21:00etara

Irunlarrea kalea 3. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa.  
31008 Iruñea, Nafarroa



DL NA 2826-2023

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa

## HAURREN KIRURGIA HANDI ANBULATORIOKO UNITATEA

Haurren KHAU



## EBAKUNTZAREN AURRETIK ETXEAN EGITEKO GOMENDIOAK

Ebakuntzaren aurreko egunean haurrak sukarra, katarroa edo beherakoa badu, jarri harremanetan Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko KHAUrekin.

Edozein arrazoi dela-eta haurra ezin bada ebakuntzaren egunean etorri, deitu telefono honetara: **848 429 837**

### KHAUra etorri aurretik

#### Zer hartu behar dugu kontuan?

Pazientea dutxatuta, azazkalak margotu gabe, bitxirik gabe eta kolonia edota kremarik gabe etorri behar da.

#### Zer ez zaio eman behar pazienteari:

- Solidoak, formula esnea edo behi esnea, ebakuntzaren aurreko 6 orduetan.
- Ama esnea: ebakuntza egin baino 4 ordu lehenago hartuko da azken aldiz.
- Ebakuntza baino 2 ordu lehenago bakarrik ura, muztioa edo sagar zuku komertziala edan ahalko du.

#### Honako hauek eraman behar ditugu:

- Kentzeko eta jartzeko erraza den arropa, etxeko zapatilak eta jaka edo bainu bata bat. Jostailuren bat ere ekar dezakezue.
- Pazientearen NANA edo osasun txartela.



## EBAKUNTZAREN EGUNEAN, UNITATERA IRITSITAKOAN

#### Nora joan behar dugu?

Kirurgia Handi Anbulatorioko Unitatera, NOU-Bko ama-haurrentzako eraikineko 3. solairura.  
(Bideko Ama Birjina ospitalea deiturikoa).

#### Zer ordutan?

Zitazioan adierazitako orduan.

#### Nork egingen digu harrera?

Unitateko idazkariak harrera egin eta datuak egiaztatuko dituzte. Pazienteari, geolokalizazio sistema duen identifikazio eskumuturreko bat jarriko diote. Informazio orri bat eta QR kode bat ere emanen zaizkizue, prozesu kirurgikoaren kokapena eta egoera ezagutzeko balio duen app-a deskargatu ahal izateko.

Ondoren, pazientea bere laguntzailearekin batera joanen da unitate batera, non ebakuntza gelara joateko prestatuko duten.



## KHAU-REN BARNE ARAUDIA

- Ama, aita edo legezko tutore bat baino ezin da sartu KHAUn. Berbera izanen da egonaldia osoan, salbuespenezko egoeretan izan ezik.
- Laguntzaileak ezin izango du jan edo edan, unitatean dagoen bitartean.
- Unitatean lan egiten duten langileen argibideak jarraitu une oro.

### Ebakuntza kirurgikoan

- Ebakuntza NOU-Bko ama-haurrentzako eraikineko kirurgia arloan egingen da.
- Kirurgia eta gero, pazientea Anestesia ondoren Bizkortzeko Unitatean egonen da, KHAUn alta eman arte.

### Haurren KHAUko egonaldian

- Etxera itzuli aurretik unitate horretan igaroko duen denbora aldakorra izanen da, kasu bakoitzaren arabera.
- Alta irizpideak betetzen dituenean, eta profesionalek gainbegiratutakoan, pazientea etxera itzuliko da.
- Identifikazio eskumuturrekoa eta geolokalizazio sistema kenduko zaizkio alta ematean. Harekin irtenez gero, itzuli, mesedez, unitatera.
- Alta txostena emanen zaizue. Behar diren jarraibideekin eta kontsultan sendatzeko edo berrikusteko hitzorduarekin.